

## **Eskulangintza**

Kulturaren Euskal Planaren Eskulangintzaren  
taldearen bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

**ESKULANGINTZA ( 03-7-13)**

<b>ESKULANGINTZA ( 03-7-13)</b>	<b>2</b>
<b>1. SARRERA: DIAGNOSI OSO KEZKAGARRIA</b>	<b>3</b>
<b>2. AMIA ANALISIA</b>	<b>4</b>
INDARRAK	4
AUKERAK	5
AHULEZIAK	6
<b>3. JARERA-ILDOAK</b>	<b>11</b>
<b>LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK</b>	<b>14</b>

## 1. SARRERA: DIAGNOSI OSO KEZKAGARRIA

Gaur egun EAEn eta Nafarroan lantegiak, jakintzak eta lanbideak desagertzen ari direla nabaritzen da, eta sektoreak BPGari egiten dion ekarpena sistematikoki behera doa.

Espanian BPGari dagokion erdira ere ez da iristen lantegien kopurua, eta urteko erroldatutako langileen eta ekoizpen-balioa dutenen ehunekoa ez da lauren batera ere iristen. Harrigarria da garatze-maila handia duten beste herrialdeekin dagoen aldea, Alemaniarekin eta Frantziarekin, adibidez. Eskulangileak bizi-kalitateari, berezitasunari eta pertsonalizazioari estuki lotuta daude herrialde horietan, eta ehun baino gehiago izaten dira. Horrek adierazten du lana sortzeko dagoen marjina, eskulangintzaren oinarritzako bi adarretan balio handikoa.

Alde batetik, herriko eskulangintza tradizionala dago. Halabeharrez galtzen joaten diren jakintza batzurekin eta identitatea berreskuratzearekin lotuta dago, eta hori arrazoi hauek direla-eta gertatzen da: industria-produktuekin lehiatzeko zailtasunak daude eta instituzioek arreta gutxi jartzen dute sektore horietan. Arlo horiek merkatuaren menpe daude erabat, ez dute inolako diru-laguntzarik jasotzen eta ez daude sektoreka ordenatuta. Harrigarria da historia berreskuratzeko lan handia egiten duen herrialde batek hain nabarmen alboratzea bere etnografia produktiboaren transmisio zuzena.

Bestalde, diseinuzko eskulangintza dago: estetizazioari eta kultura- eta jakintza-gizarte baten bizi-kalitateari lotutako ekoizpen berrien belaunaldia.

## **2. AMIA ANALISIA**

### *INDARRAK*

#### **Trebakuntza eta I+G**

- Badaude herriko eskola-lantegiak (trebakuntza eta ikerketa).

#### **Sorkuntza**

- ‘Lanbidea’ horrela ulertzen da: edozein produktu edo zerbitzu egiteko ahalmen teknikoa. Gorde beharreko herri-ondarea da, eta tokiko garapenari eta sorkuntza trebatzeari laguntzen dio, zabalkundeko plan didaktikoen bidez.

#### **Produkzioa**

- Berezitasuna eta kalitatea dira eskulangintzaren berezko ezaugarriak. Artisau-produktuek balio handia dute turismoaren sektorean KALITATE-osagai gisa, batez ere Euskal Herrian.
- Eskulangileak bere ahaleginak eta lehentasunak ezartzen ditu ekoizpen-prozesuan.

#### **Banaketa, sustapena eta zabaltzea**

- Eskulangile-elkarteak daude (Arbaso, Bizkaiako Eskulangileen Elkartea), administrazio publikotik eskulangintza sustatu eta garatzen duten erakundeak eta eskulangileen erregistro ofiziala ere badago. Lanbide bat garatzerako orduan (zaharberritzea, museoak, ikastaroak ematea) ekoizpen-bide eta osagarritasun berriak daude.

#### **Eskaerak eta merkatuak**

- Erosleak produktu pertsonalizatuak eta berdingabekoak bereganatzen ditu.
- Eskulangileen eta bezeroen arteko harremana askoz ere zuzenagoa da: lanbidearen eta eskulangilearen hurbiltasuna jendearekiko.

- Sektoreak aldizka argitalpenak egiten ditu, bai eta azoka berezituak (Erreterria, Getxo) eta eskulangintzako arloren batean kongresu berezituak ere.
- Hauek dira eskulangintzak gaur egun dituen alderdirik indartsuenak: eskaera soziala, izen ona eta eskulanak jendearentzako produktu bereziak izatea.

## **Politika instituzionalak**

### **Gizartea**

- Kulturaren parte da, objektu erabilgarrien sorkuntzako eta ekoizpeneko tradizioa duena, nola eremu tradizionalan, hala hiritarrean.
- Bizitza-kalitearekin eta inguru domestikoaren estetizazioarekin lotura du.

### **AUKERAK**

#### **TREBAKUNTZA ETA I+G**

- Ikastaroen bitartez eskulangile *senior*-en jakintza-transferentzia formalizatu eta belaunaldien ordezkatzeko baliatzeko laguntzak daude.
- Jakintza transferitu daitekeenez, aukera hori atzerriko eskulangintzatik ikasteko erabili daiteke.
- Trebakuntza eta ikerketa: Internet. Diseinuzko artisau-lanei I+G ezartzeko aukera.

### **Sorkuntza**

#### **Produkzioa**

- Lan- eta ekoizpen-prozesuetan eraginkortasun gutxi duten alderdiak murriztu behar dira, baina, beti ere, kalitatezko produktuak ekoitzi.
- Kalitate-labela ezartzeko beharra. Label hori adosteke dauden baldintzak betetzen dituzten produktuei emango zaie (lurraldea, kalitatea, lehengaiak, sormena...)

#### **Banaketa, sustapena eta zabaltzea**

- Eraskusketa- eta salmenta-sareak sortu kulturako eta turismoko esparruetan dauden azpiegiturak baliatuz.

### ***Eskaerak eta merkatuak***

- 'Etxeko produktua' izateak duen abantaila baliatu behar da. Berezko nortasunaren (berezia duena eta unibertsala) adierazpen artistiko gisa erabili behar da eskulangintza, eta memoriarekin eta benetakoarekin duen lotura balore positibo gisa gorde behar da industrializazio ondorengo eta nazioen mugak irekitzen diren garai honetan.
- Gizartean gero eta garrantzia handiagoa duten aisialdi-turismoan eta kultura-estrategietan eskulangintza sartzea. Turismoaren goraldiarekin zabaldu diren aukerak baliatu: Bilbo nazioarteko bihurtzea, kultura-turismoa duten eskualdeak eta eremu naturalak sortzea (Gorbeialdea, Urdaibai, Goierri...)

### ***Politika instituzionalak***

- Inbertsioak bultzatzeko Industria Sailaren ekintzetara sartu.

### ***Gizartea***

- Industriaurreko jakintzaren balioari berriz ere balioa eman.

## **AHULEZIAK**

### **Trebakuntza eta I+G**

- Bibliografia gutxi, termino eta kontzeptu desegokiak, hiztegi eta glosario zaharkituak.
- Beste produktuekin erkatuz eskulanak garestiak dira, bakarrak direlako, salmenta 'standing' altuko erosleei bideratzen zaiolako, beste tokietako eskulangintzak eragiten duen lehiakortasunagatik eta 'merchandising' edo gadgets produktuen ugaltzeagatik.
- Lan-araudiaren arabera, erretiratutako eskulangileak ezin du sortzen jarraitu ez eta, lanbidea gal ez dadin, gazteei erakutsi.
- Zentro berezituak eta profesionalak prestatzeko azpiegitura publikoak falta dira. Egungo lan-sistemeekin ezinezkoa da ikastunak izatea. Irakaskuntza arautua murrizta da, eta derrigorrezko irakaskuntzan 'eskulana' balio gutxiko irakasgai bat besterik ez da.

## Sorkuntza

### Produkzioa

- Biztanleria aktiboari eskulangileen sektoreak egiten dion ekarpena oso txikia da: (% 0,08), eta Espainian % 0,26. Artisau-enpresak ere oso gutxi dira Espainiako bestelako enprekin alderatuta. Hala ere, Espainiako ehunekoa (% 0,69) oso txikia da Hamabosten EBrekin konparatuta (% 21,18).
- Artisau-ekoizpenaren balioak pisu gutxi du GPgan: % 0,16. Euskal Herrian pisu hori are txikiago da: % 0,04.
- Artisau-lanbide jakin batzuetan dagoen belaunaldi-ordezkapen urriak lantegiak galtzea dakar, eta are kezagarriagoa da egoera zuntz begetalen azpisektorean (% 50,3).
- Lantegiak ez dira eraginkorrak; hainbat arlo biltzen dituzten enpresak izan beharko lirateke (ikerketa, diseinua eta sorkuntza; ekoizpena; kudeaketa – kontabilitatea, inbentarioa, hornitzaileak, bezeroak, etab.–; merkaturatze-bideak...)
- Eskulangilea ez da artistatzat hartzen, eta negozioa itxi beharra izaten du erretiroa hartzen duenean. Erretiratuak ezin dira eskulangileak izan, nahiz ez ahalmena baduten. Izan ere, erretiroa hartu eta gero ez dute lizentzia fiskalik.
- Eskulangile bat baino gehiago duen enpresa batean horietako bat bakarrik hartzen da eskulangiletzat, lizentzia fiskal bakarra baitute enpresan.
- Eskulangile batzuek beren lana osagarritzat dute, bestelako diru iturriak baitituzte. Benetan eskulangintzatik nor bizi den jakin beharra dago. Izan ere, ezkutuko ekonomia asko dago, eta horrek sektorearen informazioa eta kudeaketa zailtzeaz gain, adiministrazioarekiko harremanak ere oztopatzen ditu.

### ***Banaketa, sustapena eta zabaltzea***

- Merkaturatze-bideen inguruan zalantza dago: berezitutako dendak ez dira nahikoak (askotan ez dira errentagarriak ere) eta tokiko azokak ezta ere (maiz hutsal bihurtzen dira, gainera). Halaber, produktuak EAetik kanpora ezagutara emateko eta sustatzeko ez dago bide edo bitartekorik.

### ***Eskaerak eta merkatuak***

- 'Artisanat' izendapenaren azpian, euskal produktu gisa erraz ezagutu daitezkeen produktuak saltzen dira Iparraldean. Hegoaldean, berriz,

Hegoaldea baino askoz txikiagoa izanik eta eskulangile gutxiago izanik ere, eskaintza askoz murriztagoa da.

- Balio kulturalak merkatuaren legeen mende daude. Gaur egungo artisau-ekoizpenak ez du erabiltzeko baliorik, apaingarria da soilik, eta kontsumo urbanoko eta globalizatuko merkatura dago bideratua.

### ***Politika instituzionalak***

- Sektorearen egoeraren inguruan ezjakintasuna da nagusi eta, ondorioz, berriz ordenean jartzea ahalbidetuko duten bideak definitzeko zailtasunak daude. Definizio behar estrategiko eta proportzionala dago tradizionalaren –eta honen barruan kalitatezko eskulangintzaren eta ezagunenaren artean– eta berriaren artean. Definitzeko beharra dute, halaber, arreta handiagoa jarri beharko litzaiekeen eskulangintza-adarrek edo balio-katean gehiago zaindu beharko liritekeen elementuek.
- Artisau-produktuek ospe mugatua dute instituzioetan, eta laguntzak banatzeko orduan hausnarketa falta dago, erabiltzen diren irizpideak ez baitira egokiak.
- Eskulangintza-arloan arautegi eta definizio heterogeneoa.
- Produktu berriak egiteko laguntza faltak eskaintza egonkortzea dakar, produktu desberdin gutxi dagoelako. Merkatu bat eta ‘eskulangintzaren euskal labela’ sortzea ahalbidetuko lukeen ‘eskulangintzaren euskal plan estrategikoa’ beharrezkoa jotzen da.
- Lurralde historiko bakoitzak bere politika du, gaizki koordinatua, gainera. Politikek ez dute sektore guztia elkarrekin hartzen eta ez dute bitartekotza egingo duen sailik zehazten. Hala, diru-laguntzak kudeatzeaz eta sektorekako zenbait ekintza egingo direla komunikatzeaz soilik arduratzen da administrazioa.
- Ordezkaritza diren elkarte gehiegi daude, batzuk administrazioak berak lurraldekako diru-laguntzak ezartzerako orduan bultzaturikoak. Horren eraginez, pisuzko bitartekotza eta administrazio guztietarako estrategia koherenteak izatea zaila da.
- Lantegiei bakarrik bideratutako laguntzak ematen direnean, eskulangile batzuk kaltetuak ateratzen dira, ezin baitituzte laguntza horiek jaso, hala nola, erakusketak egiten dituztenak, denda batean salmentak egiten dituztenak, eta kontratatutako langileak dituztenak.

### ***Gizartea***

- Eskulana gutxiegi baloratzen da lan intelektualarekin alderatuz.



- Eskulangintza ikusteko eta ulertzeko modu asko daude: sektore batzuek uste dute eskulangintza memoria gabeko tradizioaren luzapena dela; beste batzuek erakusteko egin den ekoizpen kultural autoktonoa dela, hau da, manifestazio ludiko baten gisakoa; beste batzuek eskuz egindako edozein produktu dela; batzuek produktu ekologikoa dela, etab.

## **MEHATXUAK**

### ***Trebakuntza eta I+G***

### **Sorkuntza**

- Gaur egungo gizartea etengabe garatzeak ahalegin handiagoa eskatzen du sorkuntzari dagokionean, eta hori lantegi gehienentzat pentsaezina da.

### ***Produkzioa***

- Lan-arloan, bukatu gabeko transferentziak daude.
- Balio handiko produktuetan kostuen eta diru-sarreraren arteko kontuak ez dira beti ondo ateratzen. Prezioek ezin dute beti lan-denboraren balioa eta materialen balio islatu. Gainera, eskulangintza gutxietsia dagoenez, jendeak pentsatzen du merkea izan behar dela.

### ***Banaketa, sustapena eta zabaltzea***

### ***Eskaerak eta merkatuak***

- Lehiakortasun handia sortzen dute Hirugarren Munduko eskulangintzak (merkea, GKE-produktua, landatarra...) eta faltsututako 'artisau'-produktu turistikoek. Banaketa ona eta prezio baxua duten turismorako produktuak ekoizten dituzten diseinu-enpresak sortzeak ezabatu egiten dute 'souvenir'-en merkatuan artisau-produktuak sartzea.
- Ez dago belaunaldien ordezkapenik, eskulangile gazte gutxi murgiltzen baita sektorean, merkatua handitzeko dagoen muga argia dela-eta.
- Dendek ez dituzte artisau-produktuak salmentan dituztenekin batera salgai jartzen, eta azoketan gutxiegi saltzen da.

### ***Politika instituzionalak***

- Laguntza falten ondorioz, negozioak galdu egiten dira eta artisau-lanbideak transmititzeko zailtasunak sortzen dira. Hala, beste lanbide askorentzat ere arriskua larria da.

- Arautegiak ez dira egokiak. Izan ere, ohiko ustiapenezako pentsatuta egin dira, eta ez tradizioa egiteko modu bat duten pertsona bat edo biko lantegiei begira.

### **Gizartea**

- Eskulangileak ez dira aldaketa kultural eta estetikoetara egokitzen.
- 

### **BOZKATUTAKO AMIA**

### 3. JARERA-ILDOAK

#### 1. *Politikak, koordinazioa eta ekimen publikoak.*

- Sektoreak dituen behar berrietara legedia egokitu (lantegi ekoizlea, salmenta, museoak eta eskola; lan-mundua eta lege-mundua: erretiratua, ikastuna, langileak, BEZa jaistera)
- Administrazioek politika komuna egiteko beharra: aldundien artean, aldundiaren eta gobernuaren artean, bai eta Industria, Merkataritza-Turismo eta Kultura Sailarekin batera ere.
- Instituzioen parte-hartzea (Eusko Jaurlaritza, udalak, etab.). Izan ere, arlo honetako lehiarako titulartasuna ez da halabeharrez aldundiena, Lurralde Historikoen Legearen irakurketa zehatza egiten badugu.

#### 2. *Gizartea*

- Berezkoaren eta kalitatearen inguruan heziketa soziala.

#### 3. *Baliabideak bultzatzea (trebakuntza, lana, lankidetzak, etab.).*

- Belaunaldien ordezkapenik ez dagoen diziplinetan eskulangile berriak trebatzeko ekintza-plan bat diseinatzea. Horretarako, lantegian ikastea bultzatuko da edozein lanetarako oinarri moduan.
- Trebakuntza-sistema eskulangintzaren berezitasunei egokitu, eskulangintzaren profesionalizazioari eta berezitasunari begira eta kudeaketa egiteko ideia duten eskulangileei begira.
- Europako beste herrialdeekin konparatuz, gaur egun hemen dauden artisau-lanbide garrantzitsuak aztertu.

#### 4. *Enpresa-egitura*

##### 4.1. *Enpresa-egitura ordenatzea (informazioa, arauak, asoziazionismoa eta behin-behineko organismo eragileak).*

- Kalitatezko manufakturara eskulangintzaren kontzeptua eramatea, egun ez baita eskulangintzako kontsideratzen (ebanistak, erremintariak, etab.). Kasu batzuetan material eta teknologia berriei ateak zabaldu beharko litzaizkieke.
- Ahal den neurrian elkarrekin bateratzea bultzatuko da, administrazioarekiko harremana hobetzeko eta Europako eta EAEko laguntza-sisteman sartzeko zerbitzu bat gauzatzeko.
- Artisau-enpresak legeztatze hitzarmena bilatuko da (arlo fiskalari begira) instituzioek sektorea sustatzeko.

#### 4.2 Inbertsioa/finantziazioa

- Industria-finantziazio bideak inbertsio edo berrikuntza teknologikora aplikatzea, egokitu ondoren.

#### 5. **Produktu-irizpideak (nahi dena eta ahal dena) eta euskararekin eta kulturarekin duten harremana**

- Kalitatea eta diseinua *versus* kantitatea, artisau-produktuaren balio osagarritzat eta berezitasun markatzat, beti bakarra. Lehentasuna berezkotasunak edo estetika berriak du beti ere.

#### 6. **Balio-katearen eta kudeaketaren alderdiak.**

##### 6.1. *Teknologia, I+G+B*

- Eskulangintzaren atal batzuetan teknologia berriak egokitzea eta erabiltzea.

##### 6.2. *Sorkuntza*

- Sorkuntza eta diseinu berria bultzatzea (artisau-objektu klasikoak egin behar dira, baina berrikuntza bilatu eta prototipo berriak egin behar dira).
- Berreskuratze kulturalak garrantzitsuak dira; eskulangintza tradizionaletatik eta lanbide urbanoetatik gureganaino iritsi dena berreskuratu behar da (ikerketa, eta lanabesak eta teknikak biltzea)

##### 6.3. *Produkzioa*

- Lan- eta ekoizpen-prozesuak arrazionalizatu behar dira, kalitatearen, eraginkortasunaren eta iraunkortasunaren arabera.

##### 6.4. *Merkaturatzea/sustatzea*

- Euskal artisau-ekoizpenaren erakusleioa iraunkorra izatea, eta saltzeko eta erakusketak egiteko zirkuitu iraunkorrak sortzea (turismo-bulegoak, interpretazio-zentroak, museoak, etab.) eta katalogoetan, ibilbideetan eta lurraldekako estrategia turistikoetan azaltzea.
- Kalitate-irizpideak erabiliz eta etorkizunari begira, egun dauden merkaturatze-bideak legezatu eta orekatzea (azokak, sareko dendak, etab.). Horretarako, salmenta zuzena, produktuaren harremana merkatuarekiko eta banaketa-kateak gisako kontzeptuak aztertuko dira.
- Arloko azoketan paraleloki parte-hartzea (altzari-azoketan, esaterako). Hala, fabrikako altzariaren edo beste industria-produktuen alboan eskulangintzako produktua izateak duen balio erantsia aipatuko da.

- 'Salmenten zentral' banatzaile bat bultzatu kostuak eta denbora aurrezteak eta beste merkatuetan errazago sartzeko ahalbidetuko duena.

#### *6.5. Zabaltzea eta merkatuak*

- Euskal artisau-ekoizpenaren balioaz gizartea jabeaz (nahitaez irakastea; komunikabideak, aldi baterako erakusketak), eta haren izen ona zabaltzea.
- Kulturako beste arlo batzuetan merkatua berreskuratzea (zinema eta antzerkiko jantziak, dekoratuak eta muntaiak, ondarearen birgaitzea eta zaharberritzea, etab.)

#### *6.6. Kudeaketa-eredua hobetzea (ikastaroak, topaketak, aholkularitzak, hasitegiak etab.)*

- Aldundien edo gobernuaren enpresetako hasitegi-zerbitzuei laguntza eskaintzea, artisau-enpresen ekoizpen-eraginkortasuna hobetzeko. Beti ere enpresa horien izaera errespetatuko da eta produktuaren estrategia hobetzeko helburuarekin lagunduko zaie.
- Artisau-enpresaren kudeaketa orokorra ona izan dadin tresna egokiak lortzea. Hori erdiesteko, merkatuen ikerketa gaurkotuak egingo dira, eta artisau-produktuen merkaturatze-sistema berriak aztertu.
- Sektorean eztabaidatzeko jardunaldiak-bilkurak bultzatu, orokorrak edo gremioka.

### **7. Merkatua dinamizatzea (marka, labela...) eta nazioarteko bihurtzea**

- Eskulangintzako eskaintzari buruzko eta kalitate osagarriari eta turismo-eta aisialdi-sektorearen barnean garapen kulturalari buruzko eremukako ikerketak egitea.
- Euskal labela sortzea (edo elkarteko produktuentzako etiketa homologatu bat) kalitateko eskulangintzarentzat, etxekoa bultzatzeko, hobetzen eta berritzen saiatzen dena saritzeko, intrusismoaren aurka borrokatzeko, etab.
- Enpresen edo instituzioen opari gisa edo garaikur gisa erabili ahal izateko hainbat eremurekin lotura duten kalitatezko objektu batzuk definitu, gure kulturaren erakusle direnak.
- Itxura erakargarria izango duen katalogo bateratu bat egiteko beharra dago.
- Informazio guztia jasoko duen web gune bat abian jartzea (katalogoarekin eta salmentarekin).

## LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK

1. **Analisia, Dokumentazioa eta Behatokia.** Ikerketa sakon baten behar larria, instituzio bat baino gehiagok bideratua (Kultura, Industria eta Nekazaritza) sektorea ezagutzeko, estrategia bat zehazteko, jardunbideak zehazteko eta proiektu hurbilak eta epe ertainerakoak direnak ezagutzeko. Horren helburua sektorea egituratzea eta normalizatzea da.
2. **Politika instituzionalak.** Instituzioen barnean koordinazioa hastea Gobernuaren sailen, aldundien eta udal nagusien eta EUDEL-en artean, jardunbide bakarra ezarri eta laguntzen banaketa funtzionala egiteko.
3. **Kudeaketa.** Ekintza ekonomiko gisa lantegiaren kudeaketari buruzko oinarrizko arauen inguruko jakintza trukatzeko aholkularitzak eta ikastaroak behar dira.
4. **Banaketa eta sustapena.** Epe laburrean, banaketa, sustatzea, ospea eta marka hobetzeko bideetan zailtasunak eragiten ditu lantegien bideragarritasunak.
5. **Trebakuntza.** Epe ertainera, trebakuntzak eta lanbideak tranferitzeak ideia hauek ekartzen ditu mahai gainera: trebakuntza-sistemak, arte-eskolekin eta herriko lanbideekin eskulangintzak duen lotura, araututako irakaskuntza-sistemako eta unibertsitateko (zaharberritzea) eskulanak, eskulangile erretiratuak/irakasleak duen estaldura legala, etab.